

OSAKIDETZAREN JARDUERAREN BALANTZEA, 2019KO LEHEN SEIHILEKOAN

Eskari kirurgikoa, faktore demografikoak eta teknologikoak motibo izanik, igotzen ari bada ere, egonkortu egin dira itxarote-zerrendak, ebakuntza gehiago programatu baitira

Baliabideak gero eta ardura gehiagoz erabiltzen ari dira, eta hori agerikoa da Larrialdietan arreta emandako kasu oso arinen beherakadan eta HAGen jardueraren gorakadan

Osakidetzako zuzendari nagusiak positiboki balioesten du euskal herritarren % 93k uste izatea osasun publikoak ongi edo oso ongi funtzionatzen duela (2014an baino bost puntu gehiago)

Juan Luis Diego Osakidetzako zuzendari nagusiak, gaur, 2019ko lehen sei hilekoko balantzea aurkeztu du, **Andoni Arcelay Osasun-laguntzako zuzendariarekin** batera. Ondorio nagusien artean nabarmendu du nahiz eta eskaria etengabe handitzen doan, biztanleriaren zahartzeak eta, anestesia- eta kirurgia-tekniken aurrerapena dela eta, paziente gehiagori ebakuntza egiteko gaitasunak motibatuta, lortu dela itxarote-zerrenda egonkortzea, programatutako jarduera kirurgikoaren gorakadaren ondorioz, zeinak % 2,6ko hazkuntza izan baitu.

Urteko lehen sei hiletan izandako emaitzak, Osakidetzako zuzendariaren iritziz, positiboak dira, eta erakusten dute norabide horretan lanean jarraitu behar dela, kalitatekoa den eta herritarrengandik hurbil dagoen euskal osasun-zerbitzurako. Gogorarazi duenez, **euskal herritarren % 93k uste du osasun publikoak ondo edo oso ondo funtzionatzen duela (2014an baino bost puntu gehiago)**, azken Euskal Soziometroaren datuen arabera. % 67k uste

du, gainera, Euskadin eskaintzen diren zerbitzuak Estatuko gainerako lekuetan eskaintzen direnak baino hobeak direla.

OSAKIDETZAREN JARDUERAREN ONDORIOAK

2019ko lehen sei hilekoaren jarduera laburtzen duten adierazleen artean, honako hauek nabarmendu behar dira:

OSASUN-LAGUNTZARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Osakidetzak, egunero, **96.000 paziente baino gehiagori ematen die arreta; 67.000ri lehen mailako arretan eta 29.000 baino gehiagori ospitale-arretan**. Lehen mailako arretan izaten den kontsulta-kopurua egonkortu egin da.

KONTSULTAK GUZTIRA TOTAL CONSULTAS	2018	2019	2018-19
Familia Medikuntza Medicina de Familia	5.109.886	4.965.798	-2,82%
Pediatría	875.724	813.796	-7,07%
Erizaintza Enfermería	2.941.693	2.867.022	-2,54%
Ospitaleko Arreta Atención Hospitalaria	2.672.295	2.682.686	0,39%
Guztira Total	11.599.598	11.329.302	-2,33%

2019ko lehen sei hilekoan gauzatutako **jarduera kirurgiko programatuak** % 2,68 egin du gora, aurreko sei hilekoaren aldean. Era berean, **% 3,41eko gorakada egiaztatu da 65 urtetik gorako nagusiei eginiko ebakuntzetan**. Paraleloan, ospitalizazio tradizionalarekiko alternatibean goranzko joera antzeman da, alegia: etxeke ospitalizazioa, eguneko ospitale medikoa eta kirurgia handi ambulatorioa.

Era berean, PEK izenekoek (Prozedura Ez Kirurgikoak) eta Konplexutasun Handikoak direnek (esaterako, hemodinamika, erradiologia interbentzionista etab.) nolabaiteko egonkortasunari eusten diote bolumenean, eta teknika oso erabakigarriak dira.

EBAKUNTZA KIRURGIKOAK INTERVENCIONES QUIRÚRGICAS	2018	2019	2018-19
EK Nagusia Programatua IQ Mayor programada	62.417	64.088	2,68%
Kirurgia Nagusi Ambulatorioa Cirugía Mayor Ambulatoria	33.699	35.067	4,06%
65 urtetik gorakoei egindako EK IQ > 65 años	32.914	34.036	3,41%

ALTERNATIBAK OSPITALIZAZIOARI ALTERNATIVAS A LA HOSPITALIZACIÓN	2018	2019	2018-19
Etxeko Ospitalizazioa ingresuak Ingresos Hosp a Domicilio	6.273	6.306	0,53%
Kirurgia Handi Anbulatorioa Cirugía Mayor Ambulatoria	33.699	35.067	4,06%
Eguneko Ospitale Medikoa Prozedurak Procedimientos H. Día Médico	171.621	180.443	5,14%

PEK ETA KONPLEXUTASUN HANDIKOAK PNQ Y DE ALTA COMPLEJIDAD	2018	2019	2018-19
Guztira Total	34.660	32.893	-5,10%
Eremu Oftalmologikoa Ámbito Oftalmológico	15.051	16.013	6,39%

Eskari handiagoaren ondorioz, **gora egiten du ere proba diagnostiko osagarrien kopuruak**, bereziki erresonantzia magnetikoenak, OTA eta endoskopiak.

PROBA DIAGNOSTIKO OSAGARRIAK PRUEBAS COMPLEMENTARIAS DIAGNÓSTICAS	2018	2019	2018-19
OTA TAC	57.279	61.230	6,90%
Endoskopiak Endoscopias	23.299	24.784	6,37%
Ekografiak Ecografías	50.042	49.497	-1,09%
Erresonantziak (Osatek) Resonancias (Osatek)	76.905	83.340	8,37%
Guztira Total	207.525	218.851	5,46%

Ospitaleetako egonaldiak murrizten doaz, pixkanaka, zainketen eraginkortasunean eraginik izan gabe: 5,39koa da. Ospitale-alta jaso eta hurrengo 30 egunean berriro ospitaleratzeko kasuak mantendu egiten dira, % 6,4 inguru; baxuak dira eta egonaldiak luzeagoak ziren garaietako antzekoak.

OSPITALIZAZIOA HOSPITALIZACIÓN	2018	2019	2018-19
Ospitaleko altak Altas Hospitalización	139.933	138.421	-1,08%
Berriro ingresatutako ehunekoa % Reingresos	6,47	6,43	
Batez besteko egonaldia Estancia Media	6,14	5,39	

Baliabideak arduraz erabiltzeko kontzientiazio handiagoa dago. Hala erakusten dute ospitale-larrialdietan artatutako pertsonen datuek. 2019ko lehen sei hilekoan 489.659 larrialdiri eman zitzairen arreta, 2018ko aldi berean baino % 1,9 gehiagori, baina **beherakada nabarmena egon da “oso arin”tzat kalifikatutako larrialdietan**, % 13 baino gehiago jaitsi baitira. Ordea, berriz ere egin zuten gora Etengabeko Arreta Guneetan (EAG) artatutako kasuek, guztira 499.095, 2018ko lehen sei hileetan baino % 2 gehiago. Gaur egun, gainera, **EAGetan ospitale-larrialdietan baino pertsona gehiagori ematen zaie arreta.**

LARRIALDIAK ETA EAG URGENCIAS Y PAC	2018	2019	2018-19
Ospitaleko Larrialdiak Urgencias Hospitalarias	480.547	489.659	1,90%
Ingresatutako ehuneko % Ingresos	14,40	13,92	-3,33%
EAG PAC	489.308	499.095	2,00%
Guztira Total	969.855	988.754	1,95%

SAILKATUTAKO LARRIAK CLASIFICACIÓN DE URGENCIAS	2018	2019	2018-19
Oso Arina Muy Leve	39.395	34.221	-13,13%
Arina Leve	272.896	285.982	4,80%
Ertaina Moderado	149.190	151.139	1,31%
Larria Grave	14.841	13.919	-6,21%
Oso Larria Muy Grave	3.740	3.823	2,22%
Klasifikatu Gabe Sin clasificar	485	575	18,56%
Guztira Total	480.547	489.659	1,90%

Larrialdi-kopurua egonkor mantentzen da; lehen sei hilabete hauetan, 206.820 dei jaso dira, guztira. Anbulantzien mobilizazioa dela eta, bolumena egonkor mantentzen da, eta nabarmena da gorakada esanguratsua Osakidetzako helikopteroa mobilizatu den aldietan: 230 aldiz; aurreko aldian, 187 aldiz.

EMERGENTZIAK EMERGENCIAS	2018	2019	2018-19
Jasotako Deiak Llamadas Recibidas	209.764	206.820	-1,40%
Anbulantziak (OBE+BEA) Ambulancias (SVB+SVA)	94.039	94.598	0,59%
Helikopteroa Helicóptero	187	229	22,46%

Osasun mentalean arreta jaso duen paziente-kopurua areagotu egin da % 3,2 urteko lehen sei hil hauetan. Gaixotasun horietan (depresioa, antsietatea...) biztanleriaren zahartzeak eta horiekin lotura duten gaixotasun mentalek ere eragiten dute.

Emateen eremua dela eta, nabarmendu behar da **odol-emateen bilakaera** zaindu behar dela. Nahiz eta Euskadi Estatuan odol-emateen indize handienak dituen erkidegoetako bat izan, **azken sei hileko honetan beherakada txikia nabarmendu da**. Hori guztia dela eta, Osakidetza eta Osasun Sailak odola emateak duen garrantzia azpimarratzen dute, are gehiago udan, beharrak areagotu eta euskal ospitaleen erreserbei eustea zailagoa denean.

CVTTH	2018	2019	2018-19
Donaciones sangre total	43120	39826	-7,64%
Donaciones aféresis	3354	3332	-0,66%
Total donaciones diarias	371,79	350,88	-5,63%

Organo-emateen tasa, 2019ko lehen sei hilekoan, bestalde, 61ekoa izan da, milioi bat biztanleko, Osasunaren Mundu Erakundeak tasa egokitatzat jotako 40koa baino handiagoa eta Estatuko batez bestekoa eta Europar

Batasuneko herrialdeetako baina askoz ere handiagoa, argitaratutako azken datuen arabera.

Transplanteen Programa Programa Trasplantes	2018	Tasa p.m.p.	2019	Tasa p.m.p.
Organo emaileak (Giltzurruna, Gibela..) Donantes de órganos (Riñón, Hígado,...)	60	55	67	61
Giltzurrunetako T. Trasplante Renal	63	58	95	87
Gibeleko T. Trasplante Hepático	34	31	44	40
Hezur-muin emaileak Donantes médula ósea	439	401	453	413
Ehun-emailea (korneak, ehun osteotendinosoa, azala) Donantes tejidos (córneas, tej. osteotendinoso, piel)	80	73	92	84

Baheketa-programek, bestalde, partaidetza-tasak goranzko joerarekin mantentzen dituzte.

BAHEKETAKO POPULAZIO-PROGRAMAK PROGRAMAS POBLACIONALES DE CRIBADO	2018	2019
Jaio aurreko baheketa-programa Cribado neonatal (Prueba del talón)	100%	100%
Down-en sindromea Síndrome de Down	90%	90%
Bularreko Minbizia Goiz D.P. Detec. Precoz Cáncer de mama	75,40%	76,00%
Kolon-ondesteko baheketa Cribado Cáncer de Colon	72%	72%

BERRIKUNTZARI BURUZKO ADIERAZLEAK

Nabarmenezkoa da **herritarrek oso ongi onartzen dituztela Osakidetza azken urteotan ezartzen ari den onlineko zerbitzu berriak.**

Zerbitzu horiek erosotasun handiagoa dakarte, izan ere, denbora aurrezten da, ez da joan-etorririk egin behar, beharrezan ez badago, eta zerbitzu horietara berehala jo daiteke.

Horrela, web bidezko hitzorduek % 7,75eko gorakada izan dute. **Osasun-karpetarako** erabiltzaileak, bestalde, **herritarrek hoberen balioesten duten prestazioetako bat da**, eta % 40 egin dute gora. Gora egin du, halaber, **paziente kronikoen telemonitorizazioak**, % 14,23.

BERRIKUNTZA INNOVACIÓN	2018	2019	2018-19
Webguneko Hitzordueak CITA WEB	1.183.026	1.274.691	7,75%
IVR	51.708	46.655	-9,77%
Osasun Karpeta; sarbideak Carpeta de Salud; accesos	265.585	452.119	70,24%
Osasun Karpeta; erabiltzaileak Carpeta de Salud; usuarios	36.949	51.592	39,63%
Telemonitorizazioa Telemonitorización	11.580	13.228	14,23%
Ospitaleko Presentzialik Ez Kontsultak Consultas No Presenciales Hospitalarias	70.652	91.863	30,02%

Arretaren eta kudeaketaren arloko berrikuntzaren eremuan **aholku sanitarioa** nabarmendu behar da. Lehen sei hilabeteetan, 98.227 dei jaso dira, aurreko aldiari baino % 7,58 gehiago, eta, horietatik, **% 80 zuzenean konpondu ditu** zerbitzu horretan arreta ematen duten erizainen taldeak.

OSASUN AHOLKUA CONSEJO SANITARIO	2018	2019	2018-19
Hartutako Deiak Llamadas recibidas	91.310	98.227	7,58%
Erizaintzak ebatzitako deiak % % Resueltas enfermería	78,34%	80,48%	2,73%

Azpirarratzekoa da Osasun Kontseiluak egiten dituen segimendu-programa guztietatik, paziente aringarrien eta kirurgia handi anbulatorioaren segimenduaren ingurukoak nabarmentzen direla, gorakada handia izan baitute, bai eta bizitza osasungarriko ohiturak sustatzeko beste batzuk ere, esaterako tabakoa uztekoak.

ITXAROTE-ZERRENDA

Osakidetzako **Itxarote Zerrenda Kirurgikoan, egonkortasuna ikusten da batez besteko atzerapenean, zeina 48,65 egunekoa baita**; gainera, igoera ikusi da paziente-kopuruan, funtsean biztanleriaren zahartzeagatik eta berrikuntza teknologikoagatik, eta hura konpentsatzen ari da, programatutako ebakuntza kirurgiko gehiago egiten ari baitira.

Itxarote-zerrenden egonkortasuna orokorra da, Debabarrena, Debagoiena eta Uribe ESletan izan ezik.

Espezialitateen arabera, kirurgia orokorrean eta traumatologian pazienteen igoera txikia ikusten da. Pixka bat gora egin du batez besteko atzerapenak Oftalmologian eta Ginekologian, eta behera egin du Urologian.

<i>Kirurgiako Itxaron Zerrenda Lista de Espera Quirúrgica</i>	Paziente Kopurua Nº Pacientes		Batez best. Atzerapena Demora Media	
	2018	2019	2018	2019
Ezkerr-Enkar.-Gurutx. ESla	3.276	2.980	43,1	42,0
Donostialdea ESla	3.587	3.653	49,0	46,0
Araba ESla	3102	3.128	50,7	50,2
Bilbao-Basurtu ESla	3128	3.113	54,5	53,3
Barrualde-Galdakao ESla	1766	1.865	47,8	48,0
Goierri-Urola Garaiko ESla	726	693	52,4	53,1
Bidasoko ESla	518	603	40,7	45,1
Debabarreneko ESla	477	673	43,8	56,8
Alto Deba ESla	259	299	27,5	41,3
Barakaldo-Sestaoko ESla	784	781	49,0	51,7

Uribe ESla	230	914		24,0	54,0
GUZTIRA/TOTAL OSAKIDETZA	17.853	18.702		48,2	48,6

<i>Kirurgiako Itxaron Zerrenda Lista de Espera Quirúrgica</i>	Paziente Kopurua Nº Pacientes		Batez best. Atzerapena Demora Media	
	2018	2019	2018	2019
CIRUGÍA GENERAL	2.737	3.194	42,3	45,7
OTORRINOLARINGOLOGÍA	1.331	1.473	47,7	49,1
OFTALMOLOGÍA	4461	4.556	40,3	44,2
TRAUMATOLOGÍA	5310	5.517	58,6	58,7
UROLOGÍA	1083	958	50,9	41,0
GINECOLOGÍA Y OBSTETRICIA	618	690	34,1	38,5
–RESTO SERVICIOS–	2.313	2.314	49,2	43,3
GUZTIRA/TOTAL OSAKIDETZA	17.853	18.702	48,2	48,6

Informazioa **hiru lurralde** historikoetan banatzen badugu, honako hau da emaitza:

- **Araba:** egun erdi behera egin du batez besteko atzerapenak.
- **Gipuzkoa:** Donostialdea ESlan batez besteko atzerapenak behera egin duela nabarmentzen da, eta gainerakoetan pixka bat gora egin duela.
- **Bizkaia:** batez besteko atzerapena egonkortuta dago, eta joera beheranzkoa da Gurutzetan eta Basurtun. Uribe ESlan atzerapena hazi egin da, paziente-kopurua nabarmen areagotu delako; lau aldiz biderkatu da lehen sei hilabeteetan, zerbitzuak pixkanaka ireki direlako.

Kanpo Kontsulten Itxarote Zerrendan gorakada moderatua ikusi da paziente-kopuruan eta batez besteko atzerapenean, **bi egun gehiagokoa**.

Kontsultetako Itxaron Zerrenda Lista de Espera de CCEE	Paziente Kopurua Nº Pacientes		Batez best. Atzerapena Demora Media	
	2018	2019	2018	2019
Ezkerr-Enkar.-Gurutz. ESla	14.836	14.339	36,3	40,8
Donostialdea ESla	13.596	15.267	19,8	35,2
Araba ESla	14.747	15.165	26,3	28,4
Bilbao-Basurtu ESla	16.550	14.106	51	35,1
Barrualde-Galdakao ESla	12.053	12.123	18,7	24,7
Goierri-Urola Garaiko ESla	3.333	3.467	28,6	33,0
Bidasoko ESla	2.170	2.725	17,5	37,4
Debabarreneko ESla	3.112	3.039	17	40,2
Alto Deba ESla	1.275	1.669	18,5	28,4
Barakaldo-Sestaoko ESla	4.214	4.618	28,4	28,8
Uribe ESla	1.932	5.336	22,8	20,9
GUZTIRA/TOTAL OSAKIDETZA	87.818	91.854	30,1	32,4

Proba Diagnostikoen Itxarote Zerrendan egonkortasuna antzematen da batez besteko itxarotean.

Probetarako Itxaron Zerrenda Lista de Espera de Pruebas	Paziente Kopurua Nº Pacientes		Batez best. Itxaropena Espera Media	
	2018	2019	2018	2019
Ezkerr-Enkar.-Gurutz. ESla	2.618	1.729	15,6	11,4
Donostialdea ESla	2.237	3.080	13,2	9,2
Araba ESla	1.148	1.230	21,1	18,1
Bilbao-Basurtu ESla	5.319	5.921	11,7	11,0

Barrualde-Galdakao ESla	5181	4.254		21,3	19,3
Goierri-Urola Garaiko ESla	540	1.745		7,0	9,3
Bidasoko ESla	316	395		6,9	8,1
Debabarreneko ESla	278	279		11,5	7,5
Alto Deba ESla	388	499		11,9	13,6
Barakaldo-Sestaoko ESla	114	265		1,0	10,8
Uribe ESla	738	2.193		9,6	12,6
GUZTIRA/TOTAL OSAKIDETZA	18.877	21.590		14,9	13,2

OSAKIDETZARENGAN KONFIDANZA

Ondorio gisa, Osakidetzako zuzendari nagusiak honako hau azpimarratu du: nahiz eta hobetzeko marjina dagoen oraindik, **“emaitza horiek bermatzen dute euskal osasun-sisteman egiten ari den kudeaketa osasun-arretaren erreferentea dela, eta euskal gizartearen konfiantza eragiten duela”**. Hala erakusten dute azken Euskal Soziometroak jasotako datuek; haren arabera, herritarren % 92k uste du osasun publikoak ondo edo oso ondo funtzionatzen duela (2014an baino 5 puntu gehiago). Ondoan balioesten dituzten alderdien artean, Osakidetzan lan egiten dutenen profesionaltasuna, tratua gizatasuna eta instalazioak daude. Gainera, ondoan balioesten dituzten zerbitzuen artean, lehen mailako arretakoak daude.

Halaber, “euskal gizarteak Osakidetzarengan duen konfiantza nabarmena da **hamar pertsonatik zortzik ziurtatzen dutelako, ebakuntzaren bat eginez gero, ospitale publikoan egitea nahiago luketela**”. Hala gogorarazi du Juan Luis Diegok eta, gainera, positiboki balioetsi du **osasun-baliabideez egiten den gero eta erabilera arduratsuagoa**.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko uztailaren 19a